

X. Kintanaren "Behin batean"

Kintana *Beste izakia* («Euskal-Elerti 69») fikzioko nobelaren egile da, eta liburu honetan antzerako ipuinekin datorkigu.

Liburuak zazpi ipuin ditu. Lehen laurak aintzinako Grezia, Ekialde* eta Ameriketako ohitura eta sinesmen zeharretan oinharriturik. Ipuinok, politikak izanagatik, aski* ilunak dira, Sisyforena alde batera utzirik. Hau, europarragoa delako edo, gure mentalitatetik eta gure egoeratik konprenigarriagoa zaiku. Eta ez, euskara joria ez darabilako, gaiek berekin duten iluntasunagatik baizik.

Bostgarrena, Ukronia, aski anakronikoa, guztietan irristakorrena. Humore ez tentsuak, maiz,* barre algarak eragin dauzkit. *Euzkeltzaindiko* gertaeretan beretan ere ez gutti. Ipuina, *euzkeltzale* eta euskaltzale arteko burruka izanen da funtsean. Bi gramo L.S.D.k egin erazitako zorabioan edukitako ametsetatik sortua, ikusten denez. Gure artean berbakizunik gehien sortuko duena, noski. Eta bidezkoa da, hemen, neure aburu* hauetan, ipuin honi toki gehiago ematea.

L.S.D.ren efekoak neronek ez ditut probatu. X. Kintanak berak ere ez, seguru asko; eta, probatu baditu ere, zorabioa iragan* ondorean, konorta* behar bezala zuelarik idatziko zuela nik uste. Fikzioko ipuin bat egiteko atxakia besterik ez da izan Xabierrena. Baina oso gaizki planteatua, eta bere ahoberokerietan neurririk gabea. Garbizaletasuna alderdi batean jartzen du, bere arrazazaletasunaz eta faszista izateaz bat eginik; eta herrikoitasuna proletalgoa errepresentzen duen aldean, mentalitate aurrerakoiz. Alderdi bata eta bestea, H letraz ere aurrez aurre jartzen ditu.

Gezurra dirudi, memoria hain laburra izatea edo gaurko zaharren gaztaroko historia ez ezagutzea; zeren,* pittin bat ezaguturik, konturatuko baikinake, baldin erreflesionatzeko ahalmenik badugu. Haiek, besteak beste, Hitler eta haren lagunen kontra ihardun zuten; eta, gaur holakorik idaztean, ba dirudi, haren lagunen alde gabiltzala. Hauek ekarri daukuten estruktura politikoan oinharriturik, haik* juzgatu nahi baldin bada.

Garai hartan, herri-euskararen mugimendua hasita zegoen. Alde batetik, Gorosabel liberalak uxatu zuen bertsolaritza mugimendua hasi zen, Lekuona eta Aitzoli esker. Bestetik, J. Urkixo ari zen literatura zaharreko lanak argitaratzen eta baliatzen. Eta, azkenik, alderdi eskuindar hartako Altubek *Erderismos* eman zeukun.

Lotsagabeko ukamenik egin nahi ez badugu, aitortu beharrean gara, egungo argibideen sustraiak haiei zor dizkiegula. Beraz, Kintanak hauzitan jartzen duen arazo hori, gehienbat ere, adin kontua da —jakina, beti eta toki guztietan agertzen diren estremistak eta zentzugabeak aparte utzirik—. Baina politena hau da, eta bearbada Xabier Kintanak ez dakiena: Garai hartan, alderdi komunistak ateratzen zuela *euzkera*-erdaraz aldizkari bat, *Erri* izenez (ez Herria, baizik Erri, erre gangardunarekin*). Eta, proletalgoaren aldizkaria bazen edo ez bazen, *Alderdi* bezain *euzkera* garbiduna.

Ikusita dago, orduan, Altube agertu arte behinik behin, politikaz karlismoarekin kutsatuak bakarrik zirela, euskara jatorra erabiltzen zutenak. Eta hoi enfluentzia nekez ikus zitekeen Xabierrek adierazten daukun Ukronian, zeren,* gerra bestaldera joan balitz, C.N.T.ko proletari amurratuek guztiak akabatuko baitzituzten. Edo, bestela,

alderdi eskuindar hartakoek, salbatzaile bezala, beren buruen arrisku handirekin jarkiz,* zerbait egin ez balute, zenbait* presondegitan egin zuten bezala.

H kontuan, berriz, ez dut uste, proletalgoak bultzaturik ihardun zutenik, Baionan 1964.ean eta Ermuan eta Arantzazun 1968.ean bildu zirenek. Bestalde, Jon Mirandek, faszista izanik (?), beti idatzi zuen euskara jatorrez eta H-z. Eta, bestalderago, gezurra badirudi ere, Baionako erabakien ondorean ere, *Arragoa* aldizkariak, proletalgoaren izenean, oraindik neologismoz jositako garbizale-tasanari jarraitzen zion, titulua bera ere erre gangardunez jarriz.

Literaturan, fikzioak ere bere helburu batzuk* betezen ditu, eta Ukroniak ez dut uste horrelakorik duenik, alderantziz ez bada behintzat. Nire honek helbururik betetzen duen? Ba,* bai, Xabier; eta osasungarria gainera, kontaminazioen kontra eta egiaren alde.

Azken ipuin biak politikak dira. Azkenaurrekoa zerbait astuna eta aspergarria bere hasieretan, baina oso ona, egungo fikziogintzetan ohi den erakoa. Azkena oso bikaina, fikzio hoik* alde batera uzten dituen.

JUAN SAN MARTIN

daukute, **daukue**, digute
dauzkit, **daustaz**, dizkit
dizkiegu, **dautseguz**, diozkategu
zaiku, **jaku**, zaigu

zeukun, **euskun**, zigun
zion, **eutson**
zitekeen, **eiteken**



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak

HURI ZAHARRA

"Casco Viejo"

BILBO